

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Igor Ezpeleta Oregui  
Itziar Martínez Iregui  
Aitor Urrutia Oianguren  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
María Rosario Arcauz Arcauz  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko otsailaren 26an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Cantero jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 26 de febrero de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Cantero.

## **1. 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira:  
2012/10/30, 2012/11/15 eta 2013/02/13

## **2. ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

### **2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.**

2013ko otsailaren 21era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz, ondorengo erabakien berri eman da:

#### **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 123

**DATA:** 18-02-2013

**GAIA:** PARTE-HARTZE ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESKUORDETZEA

**ESPEDIENTEA:**

**INTERESDUNA:**

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa ikusita, Alkate naizen honek honako hau

#### **ERABAKI DUT**

1. Parte-Hartze udal zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketa Igor Ezpeleta Oregui jaunari eskuordetzea, Eskuordetze horrek ez dakar berarekin hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko eskumena.

2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

3. Erabaki honen berri Udaltzarrari ematea.

Eskoriatzan, 2013ko otsailaren 18an  
ALKATEA

#### **ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 123

**DATA:** 18-02-2013

**GAIA:** DELEGACION DE GESTION DEL SERVICIO DE PARTICIPACION

**ESPEDIENTEA:**

**INTERESDUNA:**

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa ikusita, Alkate naizen honek honako hau

#### **ERABAKI DUT**

1. UDALTZAINGOA udal zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketa Jose Mari Herce Isasmendi jaunari eskuordetzea. Eskuordetze horrek ez dakar berarekin hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko eskumena.
2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea
3. Erabaki honen berri Udaltzarrari ematea.

Eskoriatzan, 2013ko otsailaren 18an  
ALKATEA

#### 2.2.- Hainbat adierazpen.

##### BILDUK eramango duen lema

Alkateak jakinarazi du hemendik aurrera BILDUKO zinegotziek kartel bat eramango dutela lepotik zintzilik osoko bilkuretan lema honekin: *Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira.*

Era berean, jakinarazi du udaletxeko fatxadan kartel bat jarriko dela lema berarekin.

Alkateak Udaletxeko balkoian jarriko den kartela dela-eta, Merino jaunak beste kartel bat jartzea proposatzen du, guraizeen ikurrarekin, Eusko Jaurlaritzak zein Estatuko gobernuak onartutako murrizketen aurka gaudela adierazteko. Alkateak proposamena onartu du.

El Sr. Merino, ante el cartel que ha informado el alcalde se va a colocar en el balcón del Ayuntamiento, propone que también se coloque un cartel con el símbolo de una tijera para expresar que se esta en contra de los recortes aprobados por el gobierno tanto vasco como español. El alcalde acepta la propuesta.

### **3. GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Urrutia jaunak eta Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udaltzarkide guztiek alde, ondorengo gai hauek gai zerrendan sartzeari berretsi da:

- 1.- ESKORIATZAKO LANDAGUNETAKO ZUZKIDURA ETA EKIPAMENDU KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO ETA FINKATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ONARTZEA.
- 2.- "Santa Ana" 12 HIE-KO ARAU SUBSIDIARIOEN BIGARREN ALDAKETA PUNTUALA HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Urrutia jaunak eta Merino jaunak aurka bozkatu dute, beraien ustez jorratu beharreko gaiak ez dutelako hainbesteko premiarik.

### **4. ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei, eta kobratutakoa itzultzeko agintzea.

| ISUNA/ERREZIBOA  | ZENBATEKOA (€) | ZERGADUNA             | ZERGATIA                             |
|------------------|----------------|-----------------------|--------------------------------------|
| M75/2012         | 25,00          | Daniel ARQUERO CAVIA  | Isunaren preskripzioa                |
| M110/2012        | 50,00          | EGIA ANAIK, S.L.      | Isunaren preskripzioa                |
| M111/2012        | 50,00          | EGIA ANAIK, S.L.      | Isunaren preskripzioa                |
| 002/201202/11653 | 49,94          | Patricia RASO HERRÁEZ | Kitapen berri bat dagokio (E69/2013) |

**5. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasetako 6. eranskina aldatzea ( Mankomunitateko zerbitzuak: hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatik tasa).**

Hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatik mankomunitateko zerbitzuaren tasa arautzeko indarrean dagoen ordenantzan tasa hori ordaintzetik salbuetsita daude bakarrik gertueneko bilketa puntutik 500 m baino urrutiago dauden etxebizitzak.

Batzordekideek uste dute ez dagoela arrazoirik etxebizitza bat salbuesteko eta ez lokal batean egiten den jarduera, lokal hori 500 m baino urrutiago dagoenean; lehenengo kasuan zerbitzua behar bezala ez dela ematen uste bada, bigarrenean ere ez baita ematen.

Era berean, zerbitzuaren tarifyan hobaria egiteko ezarrita dagoen 150 m-ko distantzia 200 m-ra luzatu behar dela uste dute.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, eta Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasetako 6. eranskina aldatzea (Mankomunitateko zerbitzuak: hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatik tasa) ondoren adierazten den moduan.

- Honako hau dioen lekuan:

1.- Ez dira zergaduntzat joko etxebizitzatik zaborra jasotzeko puntu hurbilenara 500 m edo gehiago dutenak. Ez dira zergaduntzat hartuko ere egoitza soziala Eskoriatzan izan eta erakundearen helburuak benetan eta modu eragingarrian Eskoriatzan garatzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeak eta horiekin parekatu daitezkeen irabazi asmorik gabeko elkarteak.

2.-Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifa bereizten dira:

1.- Tarifa 1.0: Lur ez urbanizagarrian dauden etxebizitzak (baserri auzoetan). Artikulu honetako 4.a puntuan deskribatutako kasuak ere tarifa honetan sartzen dira.

2.- Tarifa 1.1: Beste etxebizitza batzuk. Hiri lurlean edo lur urbanizagarrian dauden etxebizitzak ere tarifa honetan sartzen dira (artikulu honetako 4.a puntuan ezarritako salbuespenarekin).

2.- Gainerakoak (2, 3, 4 eta 5 kategoriak):

1. Lur ez urbanizagarrian kokatuta daudenak (baserri auzoetan). Zaborra jasotzeko puntua 150 metro edo gutxiagora baldin badaukate, tarifa osoa ordainduko dute. Jasotzeko puntua 150 metro baino gehiagora baldin badaukate, % 50 ordainduko dute.
2. Hiri lurlean edo lur urbanizagarrian dauden zergadunek tarifa osoa ordainduko dute, artikulu honetako 4.b puntuan datorren salbuespenarekin.

4.- Hiri lurlean edo lur urbanizagarrian dauden zergadunek 150 metro edo gutxiagora izan behar dute hondakinak jasotzeko puntua. Kasuren batean hori betetzen ez bada, eta kasua aztertu ondoren Mankomunitateak esaten badu ezinezkoa dela jasotze-puntu hori 150 metro edo gutxiagora jartzea, orduan:

- a) Etxebizitzek: 1.0. tarifa ordainduko dute
- b) Gainerakoek: ordaindu beharreko tarifaren %50 ordainduko dute.

- Honako hau esatea:

1.- Ez dira zergaduntzat joko etxebizitzatik edo 2, 3, 4 edo 5 kategoriko edozein jarduera egiten den lokaletik zaborra jasotzeko puntu hurbilenera 500 metro edo gehiagora dutenak. Ez dira zergaduntzat hartuko ere egoitza soziala Eskoriatzan izan eta erakundearen helburuak benetan eta modu eragingarrian Eskoriatzan garatzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeak eta horiekin parekatu daitezkeen irabazi asmorik gabeko elkarteak.

2.-Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifa bereizten dira:

1.- Tarifa 1.0: Lur ez urbanizagarrian dauden etxebizitzak (baserri auzoetan). Artikulu honetako 4.a puntuan deskribatutako kasuak ere tarifa honetan sartzen dira.

2.- Tarifa 1.1: Beste etxebizitza batzuk. Hiri lurlean edo lur urbanizagarrian dauden etxebizitzak ere tarifa honetan sartzen dira (artikulu honetako 4.a puntuan ezarritako salbuespenarekin).

2.- Gainerakoak (2, 3, 4 eta 5 kategoriak):

3. Lur ez urbanizagarrian kokatuta daudenak (baserri auzoetan). Zaborra jasotzeko puntua 200 metro edo gutxiagora baldin badaukate, tarifa osoa ordainduko dute. Jasotzeko puntua 200 metro baino gehiagora baldin badaukate, % 50 ordainduko dute.
4. Hiri lurlean edo lur urbanizagarrian dauden zergadunek tarifa osoa ordainduko dute, artikulu honetako 4.b puntuan datorren salbuespenarekin.

4.- Hiri lurrean edo lur urbanizagarrian dauden zergadunek 200 metro edo gutxiagora izan behar dute hondakinak jasotzeko puntua. Kasuren batean hori betetzen ez bada, eta kasua aztertu ondoren Mankomunitateak esaten badu ezinezkoa dela jasotze-puntu hori 200 metro edo gutxiagora jartzea, orduan:

- c) Etxebizitzek: 1.0. tarifa ordainduko dute
- d) Gainerakoek: ordaindu beharreko tarifaren %50 ordainduko dute.

**Bigarrena.-** Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

Urrutia jaunaren boto azalpena: nik alde bozkatuko dut koherentziaz. Uste dut gai hori aurreko agintaldian ere aztertu zela, eta komentatu zen Mankomunitatetik zetorren proposamena zela, azken finean, berak ematen baitu zerbitzua. Nik orduan esan nuen, eta errepikatu egingo dut, zerbitzua emateko 500 metro baino hurbilago beharko lukeela, eta zerbitzua behar bezala eman eta kobratu beharrekoa kobratu. Izan ere, eta askotan esan dut hau, herritar batzuk zaborra ordaintzea eta beste batzuek ez, ba, ez du zerbitzuaren irudi ona ematen. Nik, orain dela 3 edo 4 urte hori defendatu nuen, eta oraingoa ere alde bozkatu beharko dut, baina, objekzio horrekin.

## **6. ESKORIATZAKO LANDAGUNETAKO ZUZKIDURA ETA EKIPAMENDU KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO ETA FINKATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek duten Eskoriatzako udalerriko landagunetako zuzkidura eta ekipamendu kolektiboak konpontzeko eta finkatzeko diru laguntzak arautzen dituzten oinarrien kopia bat.

Alkateak hitza eman ondoren, Madinabeitia jaunak labur azaldu ditu oinarriak, eta jarraian, honako hau adierazi du: egia esan, oinarri hauek ez zaizkit batere gustatzen, baina, legeak horretara derrigortzen du eta zerbait egiteko aurkitu dugun bide bakarra da. Zuetako norbaitek beste modu batera egin daitekeela esan dezake, baliteke, ni saiatu naiz horretan, baina, ez dut aurkitu beste modu errazagorik auzoalkateentzat. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko nioke jakinaraziko balu, oraingo formula hau aldi baterako izan dadin. Eta formula errazago bat bilatzea esan gura dut, ez kontrol gutxiagokoa. Niretzat oso gogorra da auzoalkateak horrelako tramiteak egitera derrigortzea, baina, ez dago beste aukerarik. Horregatik, aldi baterako zerbait izatea espero dut, eta norbaitek beste formularen bat ezagutzen baldin badu, hurrengoetarako esan dezala.

Jarraian, honako hauek hitz egin dute:

Merino jauna:

Erabat ados nago Iñakirekin, niri ere ez zaizkit batere gustatzen oinarri horiek. Udal jabetzakoak ez diren ekipamendu kolektiboentzako diru laguntzaz hitz egiten ari gara. Ez badira udal jabetzakoak, jabetza pribatukoak dira: bolatokiak, argiteria... Eta herri honetan pilotaleku eder bat dugu. Ez dakit, ez dut ezer ulertzen, tira! Ahuntzak mendira egiten duela, eta herri honetan dena gora doala. Eta nik, kontra bozkatuko dut.

Madinabeitia jaunak adierazi du bakarrik zehaztu gura duela Merinok esan duena herri honetan pilotaleku eder bat dagoela, eta hori egia dela, baina, ez esateko pilotaleku horrek zerbitzua ematen dionik 7 kilometro baino gehiagora bizi denari. Eta hori, xehe-tasun bezala esaten duela bakarrik.

Urrutia jauna: nik ere aurka bozkatuko dut. Batzordean zenbait ideia emateko aukera izan neun, baina, orain gehiago sakondu gurako nuke. Niri, gustatzearren, ez zait ezta titulua ere gustatzen: *ESKORIATZAKO LANDAGUNETAKO ZUZKIDURA ETA EKIPAMENDU KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO ETA FINKATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK*. Dokumentu horretan aipatzen diren gauza eta zerbitzu asko uste dut ez direla diruz lagundu behar, uste dut finantzatu egin behar direla. Eta batzuei tontokeria irudituko zaie, baina, alde garrantzitsua dago, diru laguntza ematea diruz laguntzea da, eta hor badira udalak eman beharko litzuzkeen zerbitzu asko, oinarrizkoak direlako. Eta gero, honako hau esaten da: *landagunetako zuzkidura eta ekipamendu kolektiboak konpontzeko eta finkatzeko*. Tira! Gure auzoek dituzten ekipamendu kolektiboak direnak dira, eta titularitate berezia dute, eta uste dut beste modu batera tratatu behar direla. Ez dakit hemen kontzeptuak oso argi dauden, eta ez dakit kontzeptu horien bidez oso garbi dagoen herriarentzat gura den proiektua. Hemen auzoak ere herria dira, eta herriarentzako proiektu bat duenak auzoentzako proiektu bat ere izan behar du, eta hemen azaldutakoarena baino kontzeptu argiagoekin. Niri ez zait balio esatea elkarte bezala eraten direla, eta herriko beste elkarteei bezala, berdin tratatu behar zaiela. Ez, elkarteak dira, eta uste dut elkarte horiek zuzenbide pribatuko figura bat erabiliz eratu direla, beraienezko ez dagoelako zuzenbide publikoko figurarik. Baina, elkarte horiek auzotar talde bat ordezkatzan dute, eta, nolabait, auzoei egitura bat, erakundetze bat edo antzeko zerbitzu ematen diote. Orduan, iruditzen zait elkarte horiek eta herriko kultura eta aisialdi elkarteak ez direla berdin tratatu behar. Eta hori esaten dut, uste dudalako kontuan izan beharreko aldea dagoela maila aldetik. Nik uste dut posible direla beste formula batzuk, eta ez ezagutzen ditudalako, baizik eta burua pixka bat nekatu beharra dagoelako. Badakit orain toki administrazioaren erreforma datorrela, baina, uste dut hemen, alkateak auzo-alkateei eskuordetuz gero, eta eskumenak eta finantzazio bat eman, herriko biztanle bakoitzari 66 euro badagozkio eta auzo bakoitzari bertan erroldatutako biztanle bakoitzeko 66 euro emango balitzaio, beharbada gauzak beste modu batera egin ahal izango liriateke. Noski, hitzarmenak sinatu beharko liriateke, baina, auzoz auzo eta elkarte elkarte. Hemen dagoen arazoa elkarteak edukiz betetzea baita, eta horrekin esan gura dut diru bat ematea, finantziario bat eta jabetza batzuen kudeaketa. Eta auzoetan gauza publikoak eta pribatuak daude. Publikoak udalarenak dira eta pribatuak partikularrenak eta elizarenak. Orduan, Udalak bere patrimonioaren kudeaketa elkarteei lagatzea da, eta gero, elkarte bakoitzak, bere trebetasunaren arabera, antzeko zerbitzu egitea elizarekin. Hemen honako hau esaten denean:

*Diru laguntzak jaso ditzaketen jarduerak landa gunean egindakoak, eta udal titularitateko ondasun edo instalazioetan izan gabe, honako hauek irautaraztea, birgaitzea, hobetzea edo ezartzea helburu dutenak izango dira: Auzotarren bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak eskaintzeko lokalak eta instalazioak: lokal sozialak, kultur eraikinak, aisialdirako eta atsedenerako parkeak, frontoiak, bolatokiak... hori oso ondo dago. Baina, kontuan izan behar da hor aipatzen diren gauza gehienak elizarenak direla. Udalak hor diru laguntza zenbateraino eman behar duenari buruzko analisi sakonagoa falta dela uste dut. Edo honako hau esaten denean: *Renovación y desarrollo del entorno rural: mejora de urbanizaciones y recuperación del entorno cuyo uso sea público, caminos y accesos a caseríos*. Tira! Ez da denbora asko bideei buruzko eztabaida izan dugula. Eta bat bera ere ez zen publikoa. Eta, orain, zer egin behar dugu? Bide pribatuak diruz lagundu behar ditugu? Udalak lehenengo egin behar duena da egin gabe duena egitea, egin gabe dituen lanak egitea, hau da, inbentarioa egitea. Hemen, kajoi batean sartuta dagoen inbentario bat dago. Batzuk maximoetakoa dela uste dugu, baina, badago minimoetakoa dela pentsatzen duenik ere. Eta dokumentu hori garatu beharko litzateke. Eta Udalak bere inbentarioa egin behar du eta bide publikoa zer den eta bide pribatua zer den definitu; eta hori definitu arte uste dut ez dela bidezkoa inolako diru laguntzarik ematerik. Baina, niretzat, lotsagarriena, hurrengo puntua da: *Auzotarrentzako oinarrizko zerbitzuak: argiteria eta instalazio elektrikoak, kanposantuak, ur hornidura sarea eta iturriak, saneamendu**

sarea... . Baina, zerbitzu horiek Udalak eman behar ditu auzoan kalean ematen dituen moduan. Zerbitzu horiek eman egin behar dira, udal eskuduntzei buruz zerbaitekin ere badaki zerbitzu horiek oinarritzekoak direla eta eman behar direla, ez direla diruz laguntzen. Horiek finantzatu egin behar dira, eta gauza bera esan dut zabor bilketa zerbitzuari buruz. Hemen, antzerakoa. Gaur egun ezin da esan Udalak ur hornidura ematen dienik Aingeru Guardatik gora dauden auzoei. Hor azpiegitura pribatu pila bat dago, klorazio arazoak daude... Udalak ur hornidura zerbitzu hori bermatu beharko luke, eta gainera, osasun eskakizun guztiekin. Niri ez dit balio esatea Mazmelakoek ez dutela gura ura kloratzerik eta horretan uztea. Mazmelakoek gainerako eskoriatzarren zerbitzu bera eta baldintza beretan izan beharko lukete. Eta horrek gauzak ez badaude argi, bada, ez dakit lñaki, ez dakit nola ez duzun ukabilkada bat ematen mahai gainean. Ez dut ulertzen, gauza horiek oinarritzekoak direlako. Gero, honakoa esaten denean: *telekomunikazio azpiegiturak (TV, internet...)*, hara! Horiek eta lehengoak berdina dira. Udalak kable bidezko banaketa zerbitzua ematen du-eta. Hemen, azkenean, auzo bakoitzari bere nortasuna eta pertsonalitatea aitortu behar zaio, hori tratatu eta islatu, eta gero, eskoriatzar guztiei oinarritzeko zerbitzuak eman. Eta diruz lagunduta ez dugu ezer egiten. Eta lehenengo testuan honako hau jartzen zuen: *La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones con cargo al Presupuesto 2013 asciende a .....* Eta gero, posta elektronikoz beste testu batzuk edo dokumentu berri bat jaso genuen aldaketa horrekin, garrantzitsuenarekin. Azkenean, kitapenari itxaron gabe onartu dadin, eta ziur aski, lñakik eta elizateetakoek premia ikusten dutelako, eta nik premia ikusten ez diodan arrazoi batengatik. Nik premia, premiarik ez diot ikusten. Eta gero, sarri entzun behar izan ditugun moduko gauzak: ez zara batzordetara etortzen-eta. Hemen, dokumentu horrekin eta jaso dugunarekin gertatu denak erakusten du ez duela askorako balio, eta batzordeak posta elektronikoz egitea proposatuko nuke. Osoko udalbatzarrera etorriko gara eta batzordeak posta elektronikoz egingo ditugu. Behar bada, parte hartzea handiagoa izango zen, eta, zergatik ez, berritzaileak izango ginateke. (Kexu da dokumentu horrekin egindakoak ez direlako gauzak egiteko modua). Gero, arreta eman didan beste gauza bat hau da: *Norbanakoak aintzat hartuz ezingo dute diru laguntzarik eskatu. , eta ondoren hizpidera ekarri du eta irakurri ditu TAO-Leko 18.e). 18.g), 24. eta 26. artikulua*)

Madinabeitia jaunak landaguneari emandako babes eskertu egin dio Aitorri eta zailantzan jarri dio deskontzentratutako organoen figura auzoetan aplikatzeko. Aitortzen du gaia erdi aztertuta gelditu zela lehenengo batzordean, eta gero beste testu batzuk bidali zituela postaz, baina, atzo egindako batzordean gaia denbora gehiago eta zehaztasun handiagoz aztertu zela eta bertaratuen artean argi gelditu zela.

Urrutia jaunak berriz ere esan du ez dela zaila praktikan jartzea berak esandakoa: kudeaketa auzoalkateei eskuordetzea eta auzoak finantzatzeko biztanleko diru kopuru bat jartzea.

Alkateak adierazi du Aitorrek azaldutako kontuek eztabaida sakonagoa behar dutela, baina, zehaztasun batzuk egin gura dituela. Horrela, lehenbizi argitu du ez dela beharrezkoa kitapenari itxarotea kontsignazioa izateko, onartutako aurrekontuetan partida bat aurreikusten dela, eta berak informazio okerra eman zuela batzordean. Gero, adierazi du aitortzen duela ez dela bide erraza, baina, legezko bide bakarra dela, eta horrela egiten dela lagundu gura diren dotazioak ez direlako publikoak, nahiz eta erabilera publikoko izaera izan; eta horregatik, oraingoan, gauzak ondo egiteko jarduerak horiek banatu egin direla: alde batetik, ondasun ez publikoetan egingo direnak, diruz lagunduko direnak; eta, bestetik, udalak zuzenean finantzatzeko dituenak. Nahiz eta auzoalkateetan eskuduntzak eskuordetu, arazoa bera izango litzatekeela, ondasun ez publikoetan egin beharreko inbertsioak izanik finantzazioa ezingo litzatekeela zuzena izan. Adierazi du diru laguntza horiek ez direla zerbitzuak emateko, baizik eta egun ematen diren zerbitzuak hobetzeko jarduerak finantzatzeko. Amaitzeko, ados agertu da lñakirekin auzoalkateek lan handia egiten dutela eta dedikazio handia dutela, eta oinarrietan aurreikusitako tramiteek ez dutela horretan asko lagun-



tzen esandakoaz, baina, udal ondere ez direnetan egin beharreko jarduerak finantzatzeko bide bakarra dela esan du.

Eztabaida amaituta, Urrutia jaunak eta Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udalerriko landagunetako zuzkidura eta ekipamendu kolektiboak konpontzeko eta finkatzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena:** Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **7. “Santa Ana” 12 HIE-KO ARAU SUBSIDIARIOEN BIGARREN ALDAKETA PUNTUALA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Juan Manuel Saez Iturrioz arkitekto jaunak “Santa Ana” 12 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen bigarren aldaketa puntualaren dokumentua idatzi du Eskoriatzako Udalaren eskariz.

Aldaketaren edukia eta ezaugarriak ikusita ez da beharrezkotzat jotzen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 87. artikuluan aurreikusitako aurrerapen dokumentua egitea, dokumentu hori egitea aukerakoa baita aldaketa kasuetan. Hala ere, derrigorrezkoa izanik aipatutako 2/2006 legeko 108. artikuluan aurreikusitako herritarren parte-hartze tramitea, aldaketaren ezaugarriak kontutan hartuta tramite hori 2/2006 Legeko 90. artikuluan aurreikusitako jendaurrean jartzeko tramitearekin batera egin daitekeela jotzen da.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Merino jaunak aurka bozkatuta, Urrutia jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI du

**Lehenengoa.-** HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA onartzea. Programaren helburua dokumentua egiteko prozesuan herritarrei eta elkartei parte hartzeko aukera eskaintzea da, eta horretarako ekintza hauek egingo dira:

- Portaleo handia eta udalaren ekimena udal web gunean argitaratzea.

**BIGARRENA:** Juan Manuel Saez Iturrioz arkitekto jaunak Eskoriatzako Udalaren eskariz idatzitako “Santa Ana” 12 HIEri buruzko Eskoriatzako arau subsidiarioen bigarren aldaketa puntualaren dokumentua hasiera batean onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Dokumentu hori jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarriko da jakinarazteko espediente HILABETE BATEZ edozeinen esku egongo dela aztertu eta, hala gura izanez gero, alegazioak jartzeko. Halaber, iragarkia gehien saltzen den egunkarietako batean ere jartzea.

Ondoren, laburtuta, eztabaidan esandakoak jasotzen dira:

Merino jaunak gogorarazi du Santa Anako auzotar batzuk planteatu zutela bere garaian Udalak aurkeztutako proiektu proposamen bat aldatzea, eta oraindik ez dutela erantzunik jaso. Horregatik, esan du, herritarrek parte hartzeko prozesuan bilera bat egin beharko litzateke beraiekin, hasierako proiektuak eragina duelako inguru horretako negoziotetan eta eskape batzuetan.

Alkateak adierazi du bi gauza ezberdin direla: bata, arau subsidiarioen aldaketa dela; eta, bestea, proiektua bera. Proiektuari buruz herritarrek parte hartzeko prozesu ezberdina egingo dela esan du, oraingo dokumentu honetan lineak aldatzea delako, erabilera aldaketak eragindako azalera definitzea, ez direla nahastu behar dokumentu honen hasierako aurreikuspena eta exekuzio proiektuarena. Aurreratu du proiektuari buruz herritarrek parte hartzeko prozesu bat egongo dela iradokizunak jasotzeko, eta ez bakarrik atarteari buruzko, baizik eta inguruaren berrurbanizazioari buruzkoa.

Urrutia jaunak esan du abstenitu egingo dela, baina, arreta deitu diola herritarren parte hartze aipatu denean, parte hartze prozesua Olazarren arauak aldatzeko egindakoarekin parekatu dela, eta baita, badirudiela parte hartze prozesua auzotarrei mugatzen dela. Bere ustez, aldaketa honek herrian duen garrantzia ez da Olazarrekoak izandakoarena, antzokiaren proiektuak herrian izan duen eta izaten ari den garrantziagatik, eta horregatik, esan du, parte hartze prozesua herri guztiari irekita egon beharko litzateke eta ez bakarrik auzotarrei mugatuta.

## **8. EUSKADIKO IKASLE ETA GAZTE SAHARARREN ELKARTEAK EGINDAKO ESKAERA.**

Euskadiko Ikasle eta Gazte Sahararren Elkarteak ondorengo eskaera egin du (testua hitzez hitz transkribatzen da) 321. sarrera zenbakia duen idatziaren bidez: (Merino jaunak irakurri du testua).

Euskadiko Ikasle eta Gazte Sahararren Elkarteak atsegin handiz jotzen du zuen udaleko instantzia gorenetera, gure ekimen berri bat ezagutzera emateko. Hain zuzen ere, Euskadi osoko udalen sare bat sortzea nahi genuke, otsailaren 27an, Saharako Estatu aldarrikatu zuen egunaren 37. urteurrena ospatzeko, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko (SEAD) bandera igotzeko.

Ezbairik gabe, zuen udalerritari duintasuna emango dion keinua da, eta, gainera, orain dela hainbat hamarkada Saharako herriaren eta Euskal Herriaren artean sortu zen elkartasuna -errespetua, elkartasuna eta pertsona guztiak beren helburua askatasunez erabakitze eskubidea oinarri dituen- gehiago sendotzea ekarriko luke.

Besterik gabe, zuen udalerritik berri onak jasoko ditugulakoan, bihoazkizue gure partetik, euskal gizarte-ehunean txertatuta gauden gazte sahararren partetik, gure eskerrik eta errespeturik handienak.

Madinabeitia jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, egindako eskaera onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak, eta horrela, otsailaren 27an Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko (SEAD) bandera jartzea udaletxean.

## **9. MENDEBALDEKO SAHARAKO EGOERAREN GAINKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak ondorengo erakunde adierazpenarekin bat egitea proposatu du:

X. legegintzaldiko legebiltzar-lanen hasiera un egokia da Legebiltzarraren Osoko Bilkurak Saharako herriarekin dituen konpromiso politiko eta humanitarioei berriro heltzeko, herri senidea den horrekiko betidanik sentitu duen hurbiltasun eta adiskidetasuna berriro adierazteko, eta Nazioarteko Zuzenbidea eta giza eskubideen errespetua eskatzen duten giltzarrietan sakontzeko.

Eusko Legebiltzarrak hainbat adierazpen, mozio eta legez besteko proposamen onartu ditu nazioarteko legalitatearen alde argi eta garbi azalduz, eta, ondorioz, exijitu du saharar herriaren autodeterminazio-prozesua bukatze erreferendum bat deituz, eta erreferendum horretan sartzeari independentziaren aukera ere. Horrez gain, laguntza humanitaria sustatu du, maila diferenteetan, Tindufeko iheslari-kanpamenduetarako. Eta, azkenik, salatu egin du Mendebaldeko Saharan gertatzen zen eta oraindik ere gertatzen den giza eskubideen zapalketa.

Gaur egun, saharar herriaren bizi-baldintzek ez dute hobera egin, eta larriagotu ere egin dira laguntza humanitaria ematen duten eta iheslariekin lankidetzan ari diren herrialdeek eta Europak bizi duten krisi ekonomikoko egoeraren ondorioz. Marokoko erregimenaren polizia-jazarpenak eta giza eskubideen urraketek oraindik ere badiraute Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan, eta laster, gutxieneko bermerik gabeko epaiketa bat egingo da Rabaten “Gdeim Izikeko 24ak” taldearen kontra, 2010eko azaroaren 8an Aaiuneko kanpamenduaren utzarazte eta desegite basatiaren ondoren atxilotutako sahararren kontra alegia.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak ondorengo adierazi eta adosten du:

1.- Berretsi egiten ditu Saharako herriaren askatasunaren eta giza eskubideen babesaren alde onetsi dituen adierazpen instituzionalak eta gainerako erabakiak, eta Marokoko Erresumak okupatutako lurraldean bizi den saharar populazioaren eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzen ditu.

2.- Marokoko agintariei eskatzen die eten dezatela giza eskubideen aldeko ekintzaileen kontrako jazarpena Saharako Mendebaldean, eta aska ditzatela Marokon eta Mendebaldeko Saharan kartzelatutako preso politikoak.

3.- Berretsi egiten du saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea Nazio Batuen Erakundeak adostutako eran.

4.- Espainiako Gobernuari eskatzen dio bete dezala dagokion papera eta babestu dezala, bere jardunean eta Europar Batasunean, gatazka konpontzeko prozesua Nazio Batuen ebazpenen arabera.

5.- Herritarrak eta erakundeak animatu egiten ditu politikaren esparrutik eta esparru humanitariotik saharar herriari babesa ematera eta harekin lankidetzan aritzera, eta orobat salatza, nazioarteko krisi ekonomikoko egoerak larriagotu duen saharar herriaren babesgabetasun –eta ahanztura- egoera.

6.- Berriro ere adierazten du aintzatetsi egiten duela Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren gobernu legitimoa eta babestu egiten dituela Fronte Polisarioko kideak, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen ordezkariak; eta, saharar herria babesten duten elkarteekin batera, kausa haren aliatu leialaren paperari eusteko konpromisoa hartzen du, hogeitortetik gorako elkartasunarekin eta legebiltzar-lanarekin egin izan duen bezala.

7.- Konpromisoa hartzen du, “Bakea eta Askatasuna Saharar Herriarentzat” izeneko Legebiltzarreko taldeartekoaren eta Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, inguru hartako elkartasun-jarduerak eta presentzia instituzionala mantentzeko, bai eta eskatzen zaizkion nazioarteko behatzaile-eginkizunak betetzeko ere.

Madinabeitia jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak Eusko Legebiltzarreko erakunde adierazpenarekin bat egitea ERABAKI DU.

## **10. ERAKUNDE ADIERAZPENA: MARTXOAK 8**

Madinabeitia jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, martxoaren 8ari buruzko ondorengo erakunde adierazpena ONARTU DU:

Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera horren aurrean, Eskoriatzako Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztientzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.

Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko.

Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu, urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubi-deen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeiok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerako batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitze gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta.

Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragaritzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrean, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien –eta familien barruan, emakumeen- esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekaritate handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.

Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara.

Gure ustez, xede horiek guztial lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeen eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.

## **11.- GALDE-ESKEAK.**

Urrutia jaunak ondorengo galderak egin ditu:

1.- Hilerripeko zubian dauden zuhaitzei buruz esan du kalean esan diotela bota egin dituztela. Jose Mari Herce jaunak esan dio usteldu zeudela eta horien ordez beste 4 landatu direla beste toki batean.

2.- Egoitzan jarritako autokonpostarekin zer gertatzen den galdetu du.

Jendartetik, eta hitza eman ondoren, Dorleta Leceta andreak jakinarazi dio hasierako aurreikuspenak ez zirela zuzenak izan, benetan botatzen ari dena baino gutxiago botako zela kalkulatu zela, eta horrek instalazioa urruntzea ekarri duela. Erabaki hori hartu arte, pare bat egunetan usain pixka bat egon zela esan du, eta hori izan zela egoiliar batek komentarioren bat egiteko arrazoia. Baina, kexak, bere horretan, ez direla egon esan du.

Itziar Martinez andreak adierazi du martxoaren 8rako hitzaldi-antzerki bat eta kafe tertulia bat antolatuta daudela. Bertaratutako guztiak gonbidatu ditu ekitaldi horietara.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 20:00etan. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1. APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas los días 30-10-2012, 15-11-2012 y 13-02-2013

## **2. COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

### **2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 21 de febrero de 2013 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta de forma expresa de las siguientes resoluciones:

#### **RESOLUCION DE ALCALDIA**

**Nº:** 123

**FECHA:** 18-02-2013

**ASUNTO:** DELEGACION DE GESTION DEL SERVICIO DE PARTICIPACION

**EXPEDIENTE:**

**INTERESADO:**

Visto lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 44 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre.

#### **HE RESUELTO**

1. Delegar la dirección y gestión del servicio municipal de Participación a D. Igor Ezpeleta Oregui. La delegación no conlleva la competencia para dictar actos administrativos con efectos a terceros.
2. Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
3. Dar cuenta de esta Resolución al Pleno del Ayuntamiento.

Eskoriatza, a 18 de febrero de 2013  
EL ALCALDE,

#### **RESOLUCION DE ALCALDIA**

**Nº:** 123

**FECHA:** 18-02-2013

**ASUNTO:** DELEGACION DE GESTION DEL SERVICIO DE PARTICIPACION

**EXPEDIENTE:**

**INTERESADO:**

Visto lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local y en el artículo 44 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre.

#### **HE RESUELTO**

